# BERRIGARA

143. zenbakia JARDUN Elkartea 1994, martxoak 25



*Kirolak:*
**Txakur Leren Lasterketa Gorlan**

**Erramu Zapatuko feria bihar**

# Oinezkoak nonnahi

## Eguraldiak laguntzen duela eta..., pasiatzera




*Zure jaunartze argazkietarako*

**KIÑU**

**TXANDA HAR EZAZU**

**Barrenkale, 35 ☎ 76 58 05**





GAZTEENTZAT MODA ETA GEHIGARRIAK

**Zure denda berria Bergaran!!**

Janden

Irizar, 1 Tfnoa: 76 20 03

# IKASI AKADEMIA

## • INGELESA IRAKASTEKO TEKNIKEI BURUZKO IKASTAROA •

• NORENTZAT: irakasleentzat (ingeles irakasleentzat batipat) edo ingelesa irakasten hasi nahi duten unibertsitateko tituludunentzat.

• NOLAKOA: klase teoriko-praktikoak, eta praktikak ingelesa ikasten ari diren taldeetan.

• IRAUPENA: Trinkoa: 6 aste, klaseak egunero.
Estentsiboa: 13 aste, klaseak astean 3 egunetan.

• ORDUTEGIA: Trinkoa: goizez, 9.00-13.00. Estentsiboa: astean 3 egunetan, 18.15-21.30.

• IKASTAROEN HASIERA: Trinkoa: apirilaren 5ean, asteartean. Estentsiboa: apirilaren 5ean, asteartean.

• IZENEMATEAK: martxoaren 14tik aurrera.

*IKASLE KOPURU MUGATUA*

"Asistentziaren egiaztagiria" emango da, ikastaroan lortutako puntuazioa ere zehaztuz.
ARGIBIDE GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO, DEITU 76 40 33 TELEFONO ZENBAKIRA ETA IKASTAROAREN TUTOREAREKIN BERBA EGITEKO ZITATU.

## • INGELES IKASTARO BEREZIAK LANGABETU ETA ETXEKOANDREENTZAT •

• MAILAK: 0, oinarrizkoa eta tartekoa.

• Astean 3 ordu (ordubete astean hiru egunetan edo ordu t'erdi astean bi egunetan.

• IRAUPENA: 6 astetik 13 astera, mailaren arabera.

• HASIERA: apirilaren 5ean, asteartea.

• PREZIOAK: 6 asteko ikastaroa: 2.500 pzta. 13 asteko ikastaroa: 5.500 pzta.

**Matxiategi Kalea, 34 1. eskuma. BERGARA ☎ 76 40 33**

BERRIGARA

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara.
Tfnoa eta faxa: 76 03 97
**Argitaratzailea:**
Jardun Elkartea
Masterreka, 13. 20.570 Bergara.
☎ 76 08 19
**Zuzendaria:**
Gorka Elorza.
**Erredakzioa:**
Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil eta Mikel Elkoroberezibar.
**Maketazioa:**
Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil.
**Publizitatea eta harpidetzak:**
Alex Azkarate eta Gorka Elorza.
☎ 76 03 97
**Kolaboratzaileak:**
Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezibar, Juan Martin Elexpuru, Josu Oregi, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon Ander Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta Ane Miren Goenaga.
**Portadako argazkia:**
Moiua Dorrea (Pol-Pol Argazki Taldea).
**Komikia eta marrazkiak:**
Bittor Rodriguez, Gorka Ortega, Jon Alvarez, Jose Martin Ezenarro eta Julian Ezenarro.
**Banaketa:**
Txantxangorri Taldea.
**Tirada:** 3.500 ale.
**Inprimategia:**
Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).
**Copyright:** BERRIGARA
**Lege gordailua:** SS 50/ 91
**ISSN:** 1130-6599
**BERRIGARA**k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du

## ZERBERRIDA?

# VICTORIANO GALLASTEGI

## *Bergarako alkatea*



**- Gasteizen gertatu den bezala, legalizatu gabeko bikoteei errejistratzeko aukera ematea aztertu duzue?**

- Bueno, momentuz ez dugu ezer finkatu gai horri buruz. Ofizialki ez da ezer egin oraindik baina egia da gure artean berba egin dugula. Gasteizkoa iniziatiba partikularra izan da; neri pertsonalki ez zait gaizki pentsatzen baina erabaki horiek hartu ahal izateko lehenbizi ondo aztertu beharra daukagu.

**- Eta zeintzuk lirateke arazo nagusienak erabaki hori hartzeko?**

- Ba oraindik ere ez dugu gaia sakonki aztertu baina, printzipioz, ez luke arazo gehiegirik ekarriko. Hala ere, uste dugu pixkat konfidentziala izan beharko litzatekeela; publikoki ateratzen bada, *morbo* pixkat ere ekar dezake eta hori ez genuke nahi. Dena den, ofiziala egin aurretik, etxe barruan, geure artean alde onak eta txarrak eztabaidatuko ditugu.

### *"Bikote ez legalizatuentzako errejistroa aztertzen ari gara"*

## ITURRI ONETIK

### Udalak Arostegi Etxea eros dezake ekainerako

Bergarako Udala Arostegi Etxea erosteko aukera aztertzen ari da. Gogoratu behar da Udalak Arostegi Etxea alokatu zuela Udaletxeko berrizte lanak irauten zuten bitarterako. Alokatzerakoan, Kutxak, Arostegi Etxearen jabeak, proposamen bat egin zion Udalari kontratoa amaitzerakoan Udalak lehentasuna izateko Etxea erosteko orduan, eta gainera orduan finkatutako prezioak ez zuela gora egingo. Kutxak 100 milioi pzta. eskatzen ditu lokalagatik eta Udalak ekainerako hartu beharko du erabaki hori, baina baliteke Udalak epe horren luzapena eskatzea.

## ESAN DUTE

"Pentsatu behar duguna zera da: nork bere zaborra gestionatu behar duela, nor bere zakarraren jabe dela, eta beraz, horrekin zer egin pentsatu behar duela. Deba Garaiko Mankomunitateko esperientzia ikusita, jendearen erantzuna espero baino hobea izan da"

**PUY GARCIA**
Deba Beheko Mankomunitateko Ingurugiro Teknikaria
ELGOI-BARREN ASTEKARIA

•

"Hau apostu bat da, kirola egitearen aldeko apostu bat: Gero eta denbora libre gehiago daukagun gizarte batean bizi gara eta denbora hori nolabait bete behar dugu; batzuk *zapping* eginez betetzen dute, hau da, bakoitzak bere afizioak ditu eta afizio hori, kirola ere izan daiteke. Kirola egiten hasi berri den horri lagundu nahi diogu, edonola ezin baitaiteke hasi"

**EDURNE JIMENEZ**
Athlon Kooperatiba Elkarteko Teknikoa
ARRASATE PRESS

•



**EL CIELO Y LA TIERRA**
Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30.




**LAS LOCAS AVENTURAS DE ROBIN HOOD**
Igandea: 11.30.




**EN EL FILO DE LA DUDA**
Apirilak 1 eta 3.

## Zinea

▼▼ **Oliver Stone**k *JFK*ren arrakastaren ondoren eginiko azken filma. Oraingoan berriz ere hain gustoko duen Vietnameko gerra aztertzen du. Baina amerikarren ikuspegitik aldegin eta hango emakume batena ematen digu. **Joan Chen** eta **Tommy Lee Jones**ekin.

▼▼ **Mel Brooks**ek **Robin Hood**en mitoarekin jokatu nahi izan du oraingoan. **Cary Elwes** protagonista delarik, zentsurik gabeko umorea eskeintzen digu berriz ere *El jovencito Frankestein* filmearen zuzendariak.

▼▼ Jaieguneko ordutegiarekin *En el filo de la duda* (apirilak 1 eta 3), *Todos a la carcel* (martxoak 31), *Fuga mortal* (apirilak 2) eta *Historias de la puta mili* (apirilak 4 eta 5) filmeak ikusi ahal izango ditugu Aste Santuan Bergarako Novedades zinearetoan.

## Deiak

▼ **Argazkiak.** Josuren eta Mikel Murgizuk ordenadorez landutako argazki zaharrak Nahikarin.

▼ **Luis I. Glez.en** diapositibak gaur 7etan ngiozarko Saloian.

▼ **Mendi irteera** Etxegarate-Ziordiara igande goizean (nagusientzat). Irteera 7.30etan Frontoitik (izen-ematea Pol-Pol tabernan).

▼ **Jubilatuen irteera.** Balmasedako prozesioa ikustera joateko egun osoko irteera apirilaren 1ean. 2.650 pta. Plaza mugatuak.

▼ **Bergarako EAJk** dei egiten du bihar Eskoriatzako pelotalekuan ospatuko den Deba Garai eta Beheko alderdikideen egunean parte hartzeko. 12etan ekitaldi politikoa: Imaz, Egibar eta Arzalluz.

## Ogia

▼ **Igandea 27:** Ogizun.

## GOARDIAKO FARMAZIAK

▼ **Larunbata 26:** Guallar/Amezua.
▼ **Igandea 27:** Guallar/Ruiz.
▼ **Astelehena 29:** Estella/Morales.
▼ **Asteartea 29:** Mozos/Azkoaga.
▼ **Asteazkena 30:** Camacho/Español.
▼ **Osteguna 31:** Puy/Corcuera.
▼ **Ostirala 1:** Guallar.


ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65


ZIRIPOT
Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

# Argazki zaharrekin jolasten

## Murgizu anaien argazki erakusketa Nahikarin

### ORDENADOREZ LANDUTAKO ARGAZKIAK



Josuren eta Mikel Murgizu Nahikarin, euren lanak atzean dituztela.

**Josuren eta Mikel Murgizu** bergarar anaiek ordenadorez landutako argazki zaharren erakusketa jarri dute Masterrekako Nahikari tabernan. Guztira, 16 lan dira bertan ikus daitezkeenak; Mikelek azaldu digunez, *"beti izan dugu argazki, postal, edota jaietako programa zaharrak batzeko ohitura. Kopiak atera eta CD-Roomen (negatiboak eta CD bat) errebelatzen ditugu. Ondoren, Photoshop programa erabiliz, argazkia moldatu egiten dugu geuk nahi dugun erara, ordenadorearen tresnak erabiliz: koloreak aldatu, testua jarri, erliebea eman, tamainuarekin jokatu..., milaka aukera daude. Oleoaren antzerako pinturaren itxura ere eman diezaiokegu eta zure kolore paleta ere sor dezakezu. Edota koadro baten bozetoa ordenadorean egin, koloretan inprimatu eta hortik koadro edo dena delakoa enkargatu".*

Inprimaketa ez da inpresora arrunt batean egiten; *"sublimaziozko inpresora deritzan batean egiten dugu, Gasteizen. Garesti samarra izaten da (dirua aurrezteko bi eta hiru tonokin lan egiteko aukera dago) baina ez dugu uste lanen prezioa garestia denik. Gainera ez dago bi argazki berdinik, ordenadorean memoria asko okupatu eta ezin direlako gorde".*

Argazki zaharrak erabiltzearen arrazoia argi dauka Mikelek: *"betidanik gustatu zaizkigulako eta, era berean, jendeak askotan ezagutzen ez dituen tokiak edo pertsonaiak ezagutzera emateko aukera ere hor dagoelako: Seminarioko kimika laboratategia izandako Zabala-Etxea, fisika laborategia, La Vergaresa autobus geltokia, Plazan falanjistak egon zirenekoa, etab. Argazkiak 1880 eta 1937. urte bitartekoak dira".*

Argazkiak ordenadorez landu ahal izateko, *"pintura ezagutu behar da pixka bat"* Mikelen ustez; *"koloreak ondo konbinatu, perspektiba izan edo margotzen jakin beharra dago".*

Josurenek eta Mikelen lanaren emaitza Nahikarin ikus dezakezue martxoaren amaierara arte.

**Jendeak ezagutzen ez dituen tokiak edo pertsonaiak ezagutzeko aukera dago**




KOXKA
• Gozokiak
• Fruitu lehorrak
• Jaunartze eta jaietarako enkarguak
Fraiskozuri, 3 ☎ 76 23 89

LONBIDE
OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

### "Nire ideiak azaltzeagatik..."

Ez da horrenbeste denbora pasatu herriko plazan, Bergarako Elkarte, Talde eta erakunde ezberdinek hainbat pintada burutu zituztela asfalto beltzaren gainean, adierazpen askatasuna aldarrikatzeko. Ez zen besterik eskatzen.

Udaran, pintadak egin zirenean, Gobernu ekipoa oso bizkor ibili zen ezabatze lanetan. ARGI! askoz politagoak zirenean erakunde ezberdinek egin zituztenak, gainetik haiek tapatzeko Udaletxeak erabili zituen tono gris haiek baino.

Baina badakizue egindako pintadak tapatzeaz gain, gobernu ekipoko hainbat kide (Alkatea barne) plazara atera zirela, hau pintatzen zihardutenen izenak jasotzera, baita ertzantza bidali ere han zeudenak indarrez kanpora botatzeko. Guzti hau "beraien" Demokraziaren izenean, noski! eta garbi asko adierazpen askatasunaren aurka.

Ez zen ez hor amaitu kasua, Bitoriano Gallastegik eta bere ekipoak duten boterea erakutsiz, horretaz akusatzen dituzten hainbat gazte juiziora sartu ditu, adierazpen askatasuna aldarrikatzen zebiltzala eta.

Gezurra dirudi, kargu hori, Alkatetza alegia, duen pertsona batek jokabide hori azaltzea herritarren aurrean. Onerako eta txarrerako kritikak onartzen ikasi behar luke, inoren ahoa tapatzen ibiltzeke asfalto beltza zikintzearen aitzakia ipinita, gustokoak ez ziren mezuak ezabatu nahian.

Urte asko pasatu ditugu ixilik derrigorrez, eta ez dugu berriro frankismoaren garaira itzuli nahi. Are gutxiago Udaletxe batek herritarrik epaitegira eramaterik, honek pentsatzen duena azaltzen duelako. Horrekin mozten da eta pertsona askok bere pentsakera adierazteko duten baliabide bakarra.

Utzi horrelako eginkizunak bakean egiten eta kasu egin herriko gestioari, badago non egin eta zer egin nahikoa, arazo ez direnak arazo bihurtzeke.

Jose Ramon Etxeberria

### Kanpora zaitez Elizatik!

Martxoaren 3an jende talde bat bildu zen Kultur Etxean apostasiaren inguruan. Jaio ginenean ez ziguten okasiorik eman gure sinismen erlijiosoez aukera bat egiteko, denok izan ginen bataiatuak Eliza Katolikoaren barruan. Gaur egun eliza honek ez digula ezer onik ekartzen uste dugu. Zapalketa eta errepresioa izan da, gehienbat, erakutsi diguna batez ere esparru moralean: emakumearen sumisioa bultzatuz, sexu askatasuna ukatuz (ezkontzaz kanpoko harreman guztiak gaitzetsiz, gay eta lesbianen aurka arituz, antisorgailuak, abortoa, etab. arbuiatuz).

Bestalde, jakina da Elizak historian zehar ejerzitoak bedeinkatu dituela. Duela gutxi Justizia Ministeritzarekin objetoreentzat Prestazio Sozialerako postuak eskeiniz tratu bat egin du. Hona hauen Dotrina Berriak dioena: "Sométame todos a las autoridades constituidas, pues no hay autoridad que no provenga de Dios...". Badirudi, beraz, intsumisoak pekatariak direla.

Arrazoi hauengatik, besteak beste, Eliza honetatik borratu egin nahi dugu. Helburu honekin bildu gara eta kanpaina bati emango diogu hasiera. Gurekin ados bazaude eta parte hartu nahi baduzu zatoz astelehenean, hilak 21, Kultur Etxera arratsaldeko 7etan.

Bergarako Apostasia Taldea

### Berrigara oporretan

Aste Santua dela eta, datorren astean ez da BERRIGARArik izan. Hurrengo alea apirilaren 8an helduko zaizue zuen etxeetara. Bien bitartean, ondo pasa Aste Santuko jaiak.

Berrigara

## Tiiira biraka

JOSE MARTIN EZENARRO



### ♦ Intsumisoen epaiketak

Atzo osteguna Miguel Albeniz intsumiso bergararra epaitu zuten Donostian. Fiskalak 18 hilabeteko kartzela zigorra eskatzen zuen eta defentsak, berriz, absoluzioa. Hurrengo epaiketak Gorka Iglesias (apirilak 14), Josu Aramendi (apirilak 21), Alex Larrañaga (maiatzak 10), Fernando Albeniz (maiatzak 19) eta Gotxi Ibarraren (maiatzak 31) aurkakoak izango dira. Gorka Iglesias, soldadutzarekiko ezezik, Ordezko Zerbitzu Sozialarekiko ere intsumisoa da.

### ♦ Ariz-Ondoren oharra

Datorren hilabetetik aurrera Ariz-Ondo aldizkaria jaso ahal izateko urteko kuota ordaindu beharko da. Interesatuek Kultur Etxean Kultur Ekintzak duen lokalera jo dezakete 6etatik 7etara.

# Erramu Zapatuko feria prest

## *Ibargarai kalea trafikora moztu egingo da*

Larunbatean Erramu Zapatuko Feria ospatuko da Bergaran. Goizeko 9 t'erdietan zabalduko da feria eta Ibargarai Hiribidean, besteak beste, abelburuak, baserriko produktuak, makinaria edota JARDUN Elkarteko Gazte Taldeak antolatutako Txorimalo lehiaketako lanak egongo dira ikusgai. Ordubatean sari banaketa egingo da eta orduerdi beranduago Narbaiza eta Egileor bertsolariak arituko dira Seminarioko patioan.



Inguruko baserrietako ganadua ikusgai Erramu Zapatuan.

Arratsaldean, berriz, 5 t'erdietan herri kirolak iragarri dira Aranzadi Ikastolako patioan eta gaueko 10.15etan, Bertsolari Jaialdia Frontoian. Bertsotan Peñagarikano, Murua, Joxe Lizaso, Lazkano, Gorrotxategi eta Larrañaga arituko dira eta, gai jartzaile, berriz, Joserra Gartzia.

Bestalde, Feria dela eta, hainbat trafiko aldaketa izango dira larunbatean: Ibargarai kalean trafikoa moztu egingo da eta beraz, Beheko Geltokirantz doan norabidea Zurradero kaletik bideratuko da eta alderantzizkoa, berriz, San Pedro kaletik zein bariantetik egin beharko da. Udaltzaingoak, derrigorrezkoa ez bada behintzat, kotxea ez erabiltzea gomendatu du.

NAHIKARI TABERNA
Masterreka, 20 ☎ 76 57 71
ARGAZKI ERAKUSKETA
1994ko MARTXOA
URKAN

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta 26, BERGARA

BERGARA
Karrozeria
Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

Carmen Garate
Plastikoak orokorrean, oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...
Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

### ◆ Idolazen Bertso paper lehiaketa

Idolaz Euskara Elkarteak Antzuolan jaio edo bizi direnentzat antolatutako bertso paper lehiaketarako lanak entregatzeko epea apirilaren 11n bukatuko da.

### ◆ Mendiko aintzinako materiala

Pol-Pol Mendizale Taldeak, Udal Kirol Zerbitzuak eta JARDUN ELkarteak mendiko aintzinako materialen (15-20 urtetik gorakoak) erakusketa antolatu nahi dute. Norbaitek etxean horrelako materialik baldin badauka JARDUNekin harremanetan jartzea eskertuko genioke, Masterreka 13an (☎ 76 08 19)

### ◆ Odol Emaileen Elkartearen Batzarra

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearen XXIX. Batzar Nagusia izango da apirilaren 17an Deban. 11etan harrera, 11.30etan meza, 12.30etan batzarra eta ondoren bazkaria izango da (2.200 pta.). Interesatuek Agirrebeña zapata dendan edota Puy farmazian eman dezakete izena. Bestalde, hurrengo odol ematea apirilaren 6an egingo da, 7etan Seminarioko baxuetan.



Biolurreko kideek hiru hilabetetik behin aldizkari bat kaleratuko dute.

## Nekazaritza ekolojikoaren alde

***Biolur nekazaritza ekolojikoaren elkartea aurkeztu da***

Asteazkenean aurkeztu zen Antzuolako Lapatza baserrian Gipuzkoako Biolur nekazaritza ekolojikoaren elkartea. Tomas Larrañaga elkarteko presidenteak esan zuenez, *"nekazaritza egokiagoa aldarrikatzen dugu, ez gaudelako ados nekazaritza konbentzionala eramaten ari duen bidearekin. Gure balorerik garrantzizkoena lurra da eta zaindu eta hobetu beharra daukagu; geure produktuak besteengandik desberdindu nahi ditugu eta abono egokia, lurraren rotazio aproposa (monokultiborik gabe), eta kalte egiten duten produktuak (pestizidak, herbizidak...) ez erabiltzea aldarrikatzen dugu".*

Oraingoz 24 produktore dira Biolurren. Diputazioarekin ere hitzarmen bat sinatu da alde teknikoa, administratiboa eta formatiboa garatzeko. Bertan jakin arazi zenez, *"prezioetan ez da alde handirik egongo baina helburu nagusia nekazaria bera eta lurra zainduz guztientzako nekazaritza egitea litzateke, lurraren esplotazioak epe gutxira ondorio sozialak (gaisotasunak, kutsadura, lurren errekuperazioa) bait dakartza".*

GISASOLA BURDINAKI DENDA
"Erratzu"
San Pedro, 8 Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

SURPE
Taberna
Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

LARREA
TABERNA
Kale Barren 17
ANTZUOLA

• Ibilgailuen Ikusketa Teknikorako (ITV) ibilgailuen azterketak.
• Era guztietako konponketak, garbiketak...
• ESKAINTZA BIKAINA: 4 gurpil erosi eta 2 ordaindu!!
Mekolalde
AUTOAK
Mekolalde auzoa. Tfnoa: 76 59 14



1993ko "Bergara Berezia Saria" koloretan (Jose Luis Feo).

# Bi argazki lehiaketa konbokatu dira

## *"Bergara Hiria" eta "Kirol Argazkien" lehiaketak martxan*

Bi argazki lehiaketa konbokatu dira egunotan Bergaran. Batetik, Udalak eta Pol-Pol Argazki Taldeak *X. Bergara Hiria Argazki Lehiaketa* antolatu dute. Bertan Euskal Herriko afizionatu guztiek parte hartu ahal izango dute eta gaia librea izango da. Partaide bakoitzak kategoria bakoitzeko (zuribeltza ala kolorea) lau lan aurkeztu ahal izango ditu Kultur Etxean apirilaren 28a baino lehen.

Bestalde, Kirol Zerbitzuak eta Pol-Polek *Kirol Argazkien IV. Lehiaketa*ko oinarriak kaleratu dituzte. Gaia kirola izango da, eta honetan ere partaide bakoitzak kategoria bakoitzeko lau lan aurkeztu ahal izango ditu. Lanak entregatzeko epea ekainaren 29an amaituko da eta sari banaketa uztailaren 15ean izango da.

Bi lehiaketetan ere, argazkiak 30 x 40 zm. kartulinetan entregatu beharko dira eta 20.000, 15.000 eta 10.000 gehi trofeoa jasoko dituzte irabazleek. Biekin argazki erakusketak antolatuko dira; *Bergara Hiria* lehiketako lanak apirilaren 28tik maiatzaren 8ra egongo dira ikusgai Kultur Etxean eta kirol argazkiena uztailaren 5etik 16ra.

### ◆ Aste Santuko eliz ospakizunak

Santa Marina Parrokiak ondoko eliz ospakizunak iragarri ditu Aste Santurako: Erramu igandean, 8.30etan, meza Sierbetan; 10etan Santa Marinan, 12etan Erramu Bedeinkapena Sierbetan eta Meza Nagusia Santa Marinan eta beste meza bat 13.15etan. Astelehenan, hilak 28, Elkarteko Adiskidetze Sakramentua 19.30etan Santa Marinan eta asteartean San Pedron, ordu berean. Ostegun Santuan Otoitza 12etan, 6etan Santa Marinan Azken Afariko Ospakizuna eta 20.00etatik 22.00etara Taldeetako Otoitzaldia. Ostiral Santuan Gurutz Bidea 12etan eta 18.00etan Jesusen Heriotz Ospakizuna. Larunbat Santuan, berriz, Otoitzaldia 12etan eta 22.00etan Jesusen Piztuerako Gau Beila. Pasku Igandean 8.30etan, Sierbetan meza, eta 10etan, 12etan eta 13.15etan Santa Marinan. Bukatzeko, apirilaren 10ean, bataioak 12etan.

### ◆ Jarrairen akanpada

Bergarako Jarraik Aste Santuan Etxarrin antolatutako akanpadan parte hartzeko interesatuek Arrano edota Pol-Polen eman dezakete izena.

KIZKUR

Ileapaindegia
Solariuma
Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

Iturkintz Berri
Amillaga 1
(B pabiloia)
BERGARA
INSTALAZIOAK:
Iturkintza
Berogintza
Gasa
☎ 76 28 04

FANCY
FANCY
GAZTEEN MODA!
Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

ETXAGI
Jatetxea
Afariak-Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak-Bazkariak
Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

# BERGARAKO
# OSASUN Gida

## ALBAITARIAK:
- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak). ☎ 76 43 29
- IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 90 81 09 30 - Koldo Eleizalde 28. ☎ 76 27 97

## ANALISI KLINIKOAK:
- LABORRA Isabel - Oxirondo, 4 1.B. ☎ 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA:
- IRIGOYEN Victor - Oxirondo, 4 1.B. ☎ 76 32 06

## DENTISTAK:
- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behea. ☎ 76 27 95
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiszkozuri, 5 behea. ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale, 1 1.C. ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behea ezk. ☎ 76 07 66
- MARMOL Pablo - Simon Arrieta, 3 2.B. ☎ 76 38 54

## HAGIN KLINIKA:
- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta, 6 2. (Lehen notaria zegoen tokian). ☎ 76 05 77

## MASAILARIAK:
- AZPEITIA Irune - Telesforo Aranzadi, 1 2. ☎ 76 14 08
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain, 5 2. E. ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain 3, behea. ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka, 7 3. A. ☎ 76 51 18

## MEDIKUNTZA OROKORRA:
- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain, 3 1.B. ☎ 76 37 50

## PEDAGOGOAK:
- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia...) - Simon Arrieta, 3 2.E. ☎ 76 26 42

## PODOLOGOAK:
- ALTUBE Edurne - Simon Arrieta, 2. ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. ☎ 76 41 32

## PSIKIATRA:
- GALLASTEGI Pablo - San Martin plaza, 2 1. ezk. ☎ 76 26 64

## PSIKOLOGOAK:
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, pskimotrizitatea). ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA Marisa (Psikologo klinikoa). ☎ 76 30 76

*Osasuna*

# Pasiatzearen abantailak



**CARLOS PARRA**

*(medikua)*

Frogatua dago ohituraz ariketa fisikoren bat egiten duten pertsonek urte gehiago hartzen dituztela bizimodu geldia dutenek baino.

Nahiko argia dirudi ariketa fisikoa egitea dela ondorengo bost gaisotasunak prebenitzeko biderik egokiena: gaisotasun koronarioa, tentsio altua, loditasuna, diabete gozo intsulina-menpekotasunik gabe eta osteoporosia (kaltzio falta hezurretan). Horretaz gain, ongizate sentsazioa haunditzen du, antsietate eta depresioak gutxitu eta loa eta autoestima eta azken finean "bizi-kalitatea" hobetzen ditu.

Pertsona guztiok egin beharko genuke ohituraz bakoitzaren adinari eta osasun-egoerari ondo datorkion ariketa fisikoren bat.

Ibiltzea da edozeinentzako egokia izan daitekeen ariketarik oinarrizkoena, molestiarik ez dakarrena, erraz eta gastu gutxirekin bete daitekeena eta lesio arriskurik gutxien duena. Eta ohituraz egiten badugu, aurrez adierazi ditugun abantaila guztiak lortuko ditugu. Ez dugu erritmoa haunditzeko presarik izan behar. Hobe da sarri egitea gutxitan eta intentsitate haundiz egitea baino. Ibiltzeko ohiturarik ez dutenentzako programa egoki bat honako hau izan daiteke: astean 3 egunetan ibiliz hasi, egunean 30 bat minutu eginez; handik 3-4 astetara erritmoa bizitu. Denborarekin (4-5 aste), gure gaitasun kardiobaskularra haunditz joango da eta horrek biziago ibiltzeko bidea emango digu.

**"Ez dugu erritmoa haunditzeko presarik izan behar. Hobe da sarri egitea gutxitan eta intentsitate haundiz egitea baino"**

Erritmo egokia honako hau izan daiteke izerditu eragiten diguna baina lagunen bat alboan izanez gero harekin hitzegiten uzten diguna. Nekea sentitu behar da baina atseginez, inoiz ez leher eginda.

Jantzi arropa eta oinetako erosoak eta irten pasiatzera.



Parra: "pasiatzerakoan nekea sentitzea ona da baina atseginez, inoiz ez leher eginda".

LARRAÑAGA eta ZUBIA
Banatzaileak
Errioxako ardoak, olioa, esnea, lejiak...
Martokua 32, tfnoa: 764594

AGENTZIA:
J. ELKORO
Ibargarai 2, behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA
ZURICH
VITA
UNIBER
CAUDAL
HISPANA
ZURICH TALDEA ASEGURUAK




*Cristina*

**Arruriaga, z/g ☎ 76 03 04 BERGARA**



Paki Dávila, Maribi Iturriaga eta Paki Hurtado Mekolalde aldean eguneroko buelta ematen.

# Pasiatzearen plazerra

## *Inguruko pasealekuak, jendez gainezka Udaberriaren etorrerarekin*

Bergaratik Soraluzerainoko trenbide zaharraren bidea aprobetxatuz pasiatzaile ugari ikusi genituen, hara joan ginenean eguraldiak ere laguntzen baitzuen.

Bidea jarraituz han egin genuen topo lana utzi ondoren, duela urtebete, paseatzeko ohitura hartu duen Marisa Egido eta Maria Romero eta Jesus Fernandez senar emazteekin. *"Goizean bi orduz senarrarekin paseatzen dut eta arratsaldean beste ordubetez aritzen naiz. Normalean Osintxuraino jaoten naiz, baina Soraluzeraino ere joan izan naiz. Pasiatzeak hanketatik ongi senti arazten nau. Irtetzen ez naizenean irtetzen hanketatik gaizki sentitzen naiz".*

Gure herrian aukera asko daude pasealekuei dagokienez, baina Egidok Mekolalde alderantz irtetzen du. *"Beste leku batzuetan aldapak igo behar dira eta hau laua da. Halere urarentzako edo, obrak egin zituztenetik zorua nahiko gaizki dago. Zulo asko daude eta euria egiten duenean bidea potzuz betetzen da. Horretaz aparte kotxeak ere ibiltzen dira, batez ere asteburuetan, kotxea gidatzen ikasten dabilen jende asko izaten baita eta askotan ez dakizu non sartu ere".*

**"Eguraldi ona dagoenenan goiz eta arratsaldez era eta adin guztietako jendea ikusten da pasiatzen"**

IGNACIO ALBISUA

### "Bidea konpondu behar da"

Mekolalde inguruan ortu asko daude eta kamino ondoan lanean 72 urteko Ignacio Albisua ikusi genuen. Honi han inguruan zenbat jende ibiltzen den galdetu genion. *"Eguraldi ona dagoenean goiz eta arratsaldez danetik ikusten da. Gazteak aintxintxikan, bizikletan, emakume helduak, jubilatuak... eta ez dakit zeinek, baina horrenbeste jende ikusita bidean dauden zuloak norbaitek konpondu beharko lituzke. Merezi du eta".*

Albisuak duela 20 urtetik dauka ortua Mekolalden eta berak esan zi-

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
•Zoruen kutxilatu eta barnizaketa•

BELENGUA
Taberna
Pintxoak, kafeak...
Ozaeta 12 ☎ 76 20 24

HARATEGIA - URDAITEGIA
Sebastian Imaz
Bildotsa, txahala eta oilazkoak
Harane Erreka, 1
76 32 67 BERGARA




ZURE ESKU DAGO

**ZURE KONPROMEZUAK AMNISTIARUNTZ GARAMATZA**

**AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEEI LAGUNDU NAHI DIET**
**EUSKAL ERREPRESALIATU POLITIKOEKIN BAT EGITEKO**

NIRE LAGUNTZA:

❑ 1.000 pzta. ❑ 3.000 pzta. ❑ 10.000 pzta. ❑ .......... pzta.

❑ 3 HILABETERO

IZENA ..................................................

HELBIDEA .................................... TFNOA ..................

HERRIA .................................... P.K. ..................

**MOZTU ETA BIDALI: ASTARLOA KALEA, 6 1. Ekuma. 48001 BILBO**

BANKU HELBIDERAKETA

AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEEK NIRE KONTUAN AURKEZTUKO DITUZTEN ORDAIN AGIRIEI KASU HARTZEKO ESKATZEN DUT

BANKOA/KUTXA .................................... BULEGOA ..................

HELBIDEA ..................................................

KONTU zenbakia ..................................................

JABEA ..................................................

SINADURA




Labegaraieta aldean topatu genuen boskote kirolzalea.

gunez paseatzeko ohiturak azken urteetan gorantz egin du eta ortuak errespetatzen dituzten galdetu genion. *"Normalean ingurua errespetatzen dute. Nahiz eta batzutan zerbait harrapatu izan didaten. Halere niri asko gustatzen zait jendea paseatzen ibiltzea eurekin hitz egiteko aukera izaten dudalako".*

Albisuak esan zigunez, Mekolalde inguruan jende gehien biltzen den ordua arratsaldeko laurak ingurua izaten da. Ordu horretan, hain zuzen ere, izan ginen Maribi Iturriaga, Paki Hurtado eta Paki Davila hirukotearekin. *"Egunero arratsaldeko 3retan elkartzen gara eta astegunean Mekolalderaino joaten gara eta asteburuan Osintxuraino. Astegunetan 5etan umeak eskolatik hartu behar ditugu eta ez dugu denborarik. Paseatzearekin etxetik haserre irten arren, umore onez bueltatzen gara. Egunero seikote bat irtetzen gara, eta dagoeneko 3 urte daramatzagu taldean paseatzen".*

Aurrekoek bezala, hirukoteb honek ere bidea konpontzeko eskakizuna egin du. *"Eguraldi ona egiten duenean goiko estaziotik irtetzen dugu, baina eguraldi txarra egiten duenean hain txarto egoten denez ez gara joaten. Harri suelto asko,potzuak, etab. daude, hori benetan pena bat da eta norbaitek konpondu beharko luke".*

**Labegaraietatik Elorregiruntz ere bai**

Labegaraietatik zehar, San Prudentziora bitartean aintzinako trenbideak utzitako bidea aprobetxatuz ere jende ugari ibiltzen da. Mekolalde inguruarekin konparatuz jende gutxi zebilen gu joan ginen egunean, baina bide honek baditu paseatzaile finkoak. *"Guztira joan eta etorri 7 km egiten dugu egunero. Etxian paseatzera etorri barik tristeago gaude. Euria eta edurra egiten badu, guardasola hartu, txubaskeroa jantzi eta ibiltzera irtetzen dugu. Astean zehar Martokuatik Tavesaraino joaten gara, baina igandetan San Migelera egiten dugu irteera. Bertan goizean mesa entzun, ondoren pintxoa jan eta buelta etxera bazkaltzera".*

Hala esan digute Angelita Arriaran, Demetria Lazpiur, Gloria Etxarri, Isabel Olabarria eta Mari Kruz Arriaranek 60 urtetik gora duten paseatzaileek. Bidearen egoera ona dela uste dute, baina badira arazoak paseatzen dabiltzan bitartean. *"Asko eta asko bizikletan pasatzen dira eta abiada bizian pasatu ere. Gainera ez dute tinbrerik eta susto handiak ematen dizkigute. Ziklistez aparte, bideko zuloek ere ez dute laguntzen".*

Aintzinako trenbidea aprobetxatzen dute gehienek pasiatzeko, baina badira beste toki batzuk, Zurra aldea batez ere, estimatuak direnak paseatzaileen artean. Beraz, orain udaberria heldu dela eta txandala hartu, zapatilak jantzi eta gure inguruak ezagutzeko aukera ezin hobea dugu. Eta gainera debalde!.

**"Eguraldi txarra egiten duenean, Goiko Trenbidea txarto dagoenez, behetik joaten gara"**

EMAKUME TALDE BAT

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi, BERGARA

• Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
• Masajeak, solariuma, perikura, estetika...
JOSEFINA
Espaloia 4, ☎ 76 35 38

BOLINTXO
Okindegia
San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz 4 EIBAR
☎ 79 63 42 ARRASATE

# SAN MARTIN IKASTETXEA

## 8. ZENBAKIA




GORKA LOBATO ETA
JOSE LUIS SALAS (6. MAILA)

# txiste berdea?

Badoa amaginarreba bat bere semearen etxera eta ikusten du bere erraina biluzik dagoela sofa gainean. Orduan amaginarrebak, erabat harrituta, galdetzen dio:

- Baina zer egiten duzu hor, guztiz biluzik?
- Ezer ez. Zer egin behar dut, ba? Gertatzen dena da hau modan dagoen pijama bat dela.
- Ah! Bai ederra dela! Nik ere probatu egingo dut.

Joaten da amaginarreba bere etxera eta bere errainak bezala egiten du. Arropa kentzen du eta sofa gainean etzaten da. Senarra heltzen denean...

- Baina zer egiten duzu? Zoratuta al zaude?
- Ez, gertatzen dena da hau modan dagoen pijama bat dela.
- Ah, ba ez legoke batere gaizki pixkat plantxatuko bazenu.

RAKEL (8. MAILA)

# musikaz

## Musikaren jatorria



Musika historiaurrean sortu zen. Trogloditak hasi ziren egiten beren emazteak iletatik helduta etxera eramaten zituztenean eta, noski, haiek oihuka hasten zirenean. Hortik sortu zen musika. Denboraren poderioz gizakiak aldatu egin ziren eta gizakiekin batera musika re aldatuz joan zen.
Musikaren historia osoa kontatzea nekagarria izango litzateke, horregatik 1920.etik aurrera gertatutakoaren berri emango dizuet.
Urte hartan "Charleston" hasi zen, badakizue, ez? Bai, gansterrekin eta Chicagon... Ba "Charleston" oso famatua izan zen.
Gero "Rock and Roll" Elvis Presleyrekin. Gazte guztiek konortea galtzen zuten musika mota hori entzutean, Beatles etorri arte. Hura zen ilea hura! Neskak ziruditen. Eta Hippiak? Ai ene! Noraino ailegatu ziren soineko haiekin!
Hala eta guztiz ere 1991. urtean agertu zen musikaririk hoberena: "Makina", "Bakalao"a eta "Disko"a, "Thecno"arekin batera. Beno, musika "Heavy"a eta "Metall"a ere bai. Eta ez dut aipatu nahi "EH Sukarra", "Sorotan Bele", "Urtz", "Negu Gorriak" zeren eta talde horiek bakarrik Euskal Herriko jendeari atsegin zaizkio eta hori niretzako pena bat da.
Amaitzeko aipa ditzagun "Makina", "Bakalao", "Disko" eta Thecno" musiketan kaleratu diren azken diskoak: "Lo - duro III", "Makina Total 6" eta "Bolero Mix 10".

GLORIA (8. MAILA)

# Berrigazte
## ikasleen orriak

# arrazismoaz

## Gero eta zabalduago gure gizartean

Orain dela 500 urte Colonek Amerika aurkitu zuen. Ordudanik indioekin oso gaizki jokatu zuten. Euren andrak bortxatu, indioak akabatu eta beren lurrak eta altxorrak lapurtu zituzten europarrek. Afrikan gauza bera gertatu zen. Gaur egun, oraindik ere, badaude beltzak saldu eta erosten dituzten trafikanteak. Zuriek ez dute inolako eskubiderik hori egiteko. Nere ustez, beldurrarengatik egiten dute hori.

Ezagutzen dut arrazista den jendea azal beltzeko jendeari gorrotoa diona. Neretako horiek tonto-lapikoak dira zeren horrelako tontokeriengatik oso lagunminak ari dira galtzen.

Baina arrazismoa ez da bakarrik azalaren kolorearen arazoa. Aurreko egunean harrituta geratu nintzen egunkaria irakurri nuenean. Jacako 30 biztanlek 4 euskalduni jipoi galanta eman zieten.

Beste egun batetan irakurri nuen Madrilen eskursio batetara joan ziren bi ikasleri dendari batek nongoak ziren galdetu ziela. Euskadikoak zirela esan ziotenean ez zien eskatutako gauzak eman nahi. Guzti honek erakusten digu arrazismoa gero eta zabalduagoa dagoela bizi garen gizartean.

CARLOS (8. MAILA)



# asmakizunak

*Matxin daukat izena*
*eta saltoka ibiltzen naiz*
*ez naiz oso gizena*
*baina azkarra eta arina bai*
***Zer da?***

*Azokan erosi ditut*
*ederrak ziren ustez*
*etxera etortzean*
*utzi naute negarrez*
***Zer da?***

## Bertso tristeenak

**Gau hotz batean,**
**desertuan, izarrekin,**
**ohean itzal bat ikusi nuen:**
**Aladino zen ile luzearekin.**

**Goibel eta bakarrik nengoen**
**eta horrek beldur haundia eman**
**zidan:**
**- Lagundu! -oihukatu nuen**
**Eta Aladinok esan zidan:**
**- Ume!, ez eduki beldurrik**
**nik lagunduko dizut!**
**Nere sabela beteta zegoen eta**
**beldur haundia sentitzen nuen**
**bere burusian.**
**Han lotan geratu nintzen**
**lurreratzea lortu arte gaztelu**
**zoragarri batean Bagdadeko**
**hirian.**

JUNCAL (8. MAILA)

PUBLI-ERREPORTAIA

# — GIARTZU —

## DERMOESTETIKA ZENTRUA. GORPUTZAREN ESTETIKAN GARRANTZITSUENA.

### LIPO-SUKZIOA GURE ESKURA

Gizon-emakumeok gure gorputzarekin ez gara gustora egoten eta horrek ondorio estetikoez gain, psikologikoak ere izaten ditu.

Gaur egun, eta teknika eta prestakuntza mailan izandako aurrerapenei esker, orain arte imajinatu ere egiten ez genituen edo eskura ez zeuden tratamendu eta emaitzak lortzea posible da.

**Giartzu Dermoestetika Zentruan** egiten ditugun tratamenduak, errazak, eraginkorrak eta ia minik gabekoak izaten dira, eta emaitzak berriz oso arrakastatsuak, edozein arazori irtenbide osoa ematen diogu eta.

### MEDIKUNTZA-ESTETIKA-KONTSULTAKO TRATAMENDUAK

**Zer da benetan medikuntzako tratamendu estetikoa?**

**Eta kontsultako medikuntza-tratamendua?**

Medikuntzako tratamendu estetikoa, bere izaera eta garrantziagatik medikuntzaren konpetentziakoa dena izaten da: Artecol eta Arteplas inplanteen bidez zimurrak kentzea; ezpainetako marra haunditzea; aurpegiko obalua aldatzea; begizuloetako poltsak erabat kentzea; eta azalaren azpiko grasa soberakina edo gehiegizkoa (mitxelinak) kentzea, lipo-sukzioa deitzen duguna; eta guzti hori medikuntza eta zirujia estetikoan espezializatutako mediku batek baino ezin du egin.

Kontsultako tratamendua, berriz, arazo estetiko hutsa dutelako kirofanora joan edo ingresatu beharrik ez duten pertsonei egiten dieguna izaten da; tratamendu horiek eta ondorengo errekuperazioa azkarra eta erraza izaten dira.



*Marisabel Hurtado, Giartzuko arduraduna*

### LIPO-SUKZIOA

Tripa edo izterretako grasa kentzea ordubetean egiteko modua dugu; behin betirakoa izaten da eta egun bakarrean errotik mozten dugu arazoa. Tratamenduaren ondoren etxera joan eta bizimodu normala egiten da.

### ZIMURRAK KENTZEA

Ahoaren inguruko, sudurreko edo espresioaren ondoriozko zimurrak (aurpegiko edozein zimur) kentzea, betirako kentzen dira saio batean edo bitan.

### BETAZPIETAKO POLTSAK (BEGIETAKO POLTSAK) KENTZEA.

Ez du bat ere minik egiten eta poltsak kentzearekin batera, beharrezko izanez gero, begi inguruko zimurrak ere kentzen dira.

**Tratamendu hauetarako mediku espainiar eta frantziar taldea dugu, medikuntza eta zirujia estetikoan espezializatuak guztiak.**

*George Cuentan Doktorea*

PARISKO UNIBERTSITATEAN ZIRUJIA ESTETIKOAN ESPEZIALIZATUA. FRANTZIAKO ZIRUJIA ESTETIKOKO ELKARTEKO PARTAIDEA. LIST DE FRANCE-EUROPE ESTHETIQUE DELAKOKO PARTAIDE PARISEN. FRANTZIAKO LIPO-SUKZIO ELKARTEKO PARTAIDEA.

*Enrique Vilasau Doktorea*

BARTZELONAKO UNIBERTSITATEAN MEDIKUNTZA ETA ZIRUJIA ESTETIKOAN LIZENTZIATUA. ESPAINIAKO MEDIKUNTZA ETA ZIRUJIA ESTETIKA ELKARTEKO PARTAIDEA. EZARKETA ZUZENTZAILETAN ESPEZIALIZATUA. BARIZETAKO ARAZOETAN EZPEZIALDUA

*Josean Louis Labeque Lecchi doktorea*

MEDIKUNTZA ETA ZIRUJIAN LIZENTZIATUA, BORDELEKO UNIBERTSITATEAN. FLEBOLOGIA ETA ESTETIKA ELKARTEKO PARTAIDEA. LIST DE FRANCE-EUROPE ESTETIQUE DELAKOKO PARTAIDE PARISEN. EZARKETA ESTETIKOETAN ESPEZIALIZATUA. AZALEKO ARAZOETAN ESPEZIALIZATUA. FLEBOKTOMIAN ESPEZIALIZATUA.

### PAPADA EDO OKOTZ BIKOITZA

Papada izenez ezagutzen duguna ere behin betirako kentzen da.

**GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTRUA**

**Boni Laskurain, 3 BERGARA ☎ 76 36 71**

# Philippe Oyhamburu

## *Oyhamburu abesbatzako zuzendaria*

**Pasa den larunbatean gure artean izan genuen Iparraldetik etorritako Oyhamburu abesbatza. Hori aprobetxatuz Philippe Oyhamburu zuzendariarekin izan ginen.**



"Euskal Herrian galduta zeuden abizen batzuk, Behibide esate baterako, Mexikon aurkitu ditut".

**- Noiz eta zela hasi zinen euskal kulturaren munduan murgiltzen?**

- Ni dantzan, Olaeta, Miarritzen erbesteratua zegoen bizkaitarrarekin ibili nintzen 20 urtetan. Ondoren Oldarra dantza taldea sortu genuen eta 1952an Bergaran ere izan ginen. Oldarrarekin 8 urte eman nituen eta gero, Etorki taldea sortu genuen. Honekin 30 urtez mundu osoan zehar ibili gara.

## "Hego eta Iparraldeko Euskal Herriaren arteko harremanak indartu beharko lirateke"

**- Dantza utzi eta abesbatza sortu duzu. Zergatik?**

- Etorkirekin Euskaleria erakusten genuen, orduan kantuak euskaldunak ziren. Orain, berriz, erdiak euskaldunak eta beste erdiak gure gustokoak diren mundu guztiko abestiak dira. Baina badugu berezitasun bat, Georgianoz abesten ari gara. Hizkuntza minorizatuetan abesteari garrantzia haundia ematen diogu. Georgianoz, Gascoignez, Quetchuaz abesten dugu. Euskal kantak euskaraz abesten ditugu, baina abesti bakoitza jatorrizko hizkuntzan beti.

**- Euskaldun zaharra edo ikasitakoa zara?**

- Ni euskaldun berria naiz. Denbora hartan ez zen ikastolarik ez eta euskal komunikabiderik. Ahal bezala ikasten genuen. Banituen osaba-izeba batzuk Hendaian eta beraiekin zerbait ikasi nuen. Gero baserrietan egonaz, horrela ikasi nuen.

**- Euskal kulturaren egoera nola dago Iparraldean?**

- Nire gazte denboran baserrietako haur guztiek zekiten euskaraz, orain, berriz, baserrietan galtzen ari da; baina lehen, hirietako burgesek eta aberatsek ez zuten euskara erabiltzen. Orain hasi da hiri handietan jende gaztea, intelektualak, apaiz gazteak... euskara ikasten eta erabiltzen, baina arriskuan gaude.

**- Dantzaz eta kantuaz aparte Euskal abizenen trilogia bat ere idatzi duzu...**

- Euskal abizenen hiztegia idazteak 10 urteko lana eman dit. Nere bizitzaren zati handiegia izan da. Lana interesgarria izan zen eta horrekin euskara barneratzea lortu nuen. Guztira 40 mila abizen bildu ditut. Lehenik abizenak zer esan nahi duen adierazten dut eta ondoren non aurkitzen diren. Abizen batzuk errazak dira definitzeko, baina beste batzuk oso zailak. Lan asko izan dut eta Mitxelenak egindako lanaz asko baliatu naiz. Aldiz hemen badira beste bi hiztegi hutsez beterik (ez zigun izenik aipatu). Mundu guztian zehar zabaldurik dauden euskal abizenak biltzen saiatu naiz eta Euskal Herrian galduta dauden abizen batzuk, Behibide esate baterako, Mexikon aurkitu ditut.

**- Kultura mailan nola daude Iparralde eta Hegoaldearen arteko harremanak?**

- Ez da aski harremanik. Badira baina gehiago behar lirateke. Zuek etorri behar duzue sarriago eta gu hona gehiago. Donostian zerbait interesgarria dagoenean ez gara enteratzen eta Miarritz Donostiatik gertu dago. Gero ere, Hego Euskal Herrian Euskara mintzatua gero eta hobea da. Baina idazterakoan gaizki idazten da. Guk ez dugu ulertzen ez Egin, Deia, ezta Telebistako albisteak ere. Asmatu behar da euskara korrienteago bat elkar ulertzeko.

# Zer iruditzen zaizu emakumeak apaiz izatea?



**Maite Gómez**
*29 urte, langilea*

Neri ondo. Normala, ez baitago diferentziarik gizon bat izatearekin.



**Miguel Idarreta**
*77 urte, jubilatua*

Orainartean ez da izan baina aurrerantzean igual izango da. Mundua aldatzen doa eta guztia aldatzen da gaur egun.



**Maria Luisa Markoida**
*61 urte, etxekoandra*

Neri ez zait egoki iruditzen, ohitura faltagatik beharbada. Baina premia badago jarri beharko dute. Batere ez egon baino...



**Manu Arrillaga**
*18 urte, ikaslea*

Ondo. Neri berdin zait baina ez zait gaizki iruditzen. Bakoitzak ikusiko du zer egin...



**Mari Carmen Dobao**
*29 urte, langabetua*

Ondo. Faltan bota? Erlijioak ez dit gehiegi esaten baina gizon eta emakumeek eskubide berdinak izan behar dituztela uste dut.



**Juan Alkorta**
*55 urte, langilea*

Ondo iruditzen zait emakumeei aukera hori ematea. Uste dut eskubide berdinak izan behar dituztela.

ARREGUI, E.M.
AROZTEGIA
• AROZLAN MEKANIKOAK
• SUKALDEKO ARMAIRUAK
• HORMA ARMAIRUAK
• ATEAK, etab.
• TARIMAK-PARKETAK
• NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
• PVCzko LEIHOAK
Urteaga, 20. 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

*BERGARAKO UDALAREN* *OHARRA*

Bergarako Udalak Oxirondoko udal merkatu berriko postuak, kontsezio bidez, adjudikatu behar dituenez, interesa izan dezaketen guztiei jakinerazten zaie proposamenak aurkezteko epea 1994.eko apirilaren 13ko eguerdiko ordu batean bukatzen dela.

Informazio gehiago Barrenkale 7an dauden Idazkaritzako bulegoetan.

Merkatu berria ikusi nahi izanez gero ere, Barrenkale 7an dagoen Udaltzaingoarengana jo behar duzue, goizeko 10etatik 11etara eta arratsaldeko 5etatik 6etara, astelehenetik ostiralera.



# Nik diñot

Kaixo Maria!

Zer moduz zaude? Ondo espero dut. Eskutitzak idaztea ez da erreza izaten, gaur egun bestelako erak bait daude sarritan ikusten ez dugun lagun batekin mintzatzeko.

Otsaileko azterketak amaitu direnez, ikasketak ez diren bestelako iharduеretan aritzeko denbora gehiago daukat eta lagunek bidalitako eskutitzei erantzuten hasi naiz.

Oraindik ez dizut ia ezer kontatu, baina badirudi gutun bat idaztea ez dela aurrez pentsatu bezain zaila. Gaur egungo ohitura modernoek, gure arteko adiskidetasuna iraunkortu asmoz telefonoa erabiltzera bultzatu gaituzte. Baina lehen urrats honekin telefonoa behingoz eskegi eta zuri, aipatu ditudan lagunei legez, kartatxo bat idaztea erabaki dut.

Azaldu dizudan ideia hau nahiko zaharkituta dagoela izan dezakezu, baina ideia ona denik ezin uka dezakezu. Jakin badakit bide hori jarraiki gure ahotsak entzutea ezinezkoa izanen dela, baina gure esanak denborak ezabatuko ez dituen hitzak izango direla pentsatzeak, irudimena martxan jartzea besterik ez du eskatzen.

Ia ba, neska! Anima zaitez! Orri pare bat eta boligrafoa besterik ez duzu behar, zure imajinazioa eta gogoaz gain. Horrela, kaletik zehar ttanttaka sakabanaturik dauden postontzien erabilgarritasunari zentzua aurkituko diezu, etxeko postontzian eguneroko errezibuak, propaganda ez diren lagunen eskutitzak daudela ikustea pozteko arrazoi ezinhobea da.

Zure erantzunaren zain nago. Besterik gabe eta ia galduta dagoen ohitura hau berreskuratzeko asmoa nirekin konpartituko duzulako nahiarekin agurtzen naiz.

**Maria GOMEZ**

# Aldaketak



Egun hauetan gertakari batek herriko alderdi bateko ikuspegia aldarazi digu: Ibargarai ibilbideko eraikuntza zahar batzuen botatze lanek ikusten ez genituen etxeen atzekaldeak bistan utzi dituzte. Ze ondo ikusten den **Rocaverde** markesaren etxearen atzekaldea, bere galeriak eta guzti.

Baina argi, dena ez da hain polita. Begira ezazu, bestela, azken pisuan zabalduriko leiho zuri batek sortzen duen "kantea". **Santa Marina** elizaren inguruak ere denbora oso laburrean aldatu zaizkigu. Egun hauetan Oxirondo parrokiako mendebaldean obretan ari dira aparkaleku bat egiteko asmoz. Elizaren mendebaldeko fatxada neoklasikoa Alejo de Mirandak jaso zuen 1791 eta 1798 urteen bitartean Santa Marinako fatxada nagusi bezala. Hegoaldean dagoen dorre barrokoa lehenago (1701ean jasota zegoen) eraiki zen. Dudarik gabe, bai ifarraldera dagoen elizatariak, baita bi alde hauetan zabaltzen diren fatxadek ere **multzo eta inguru** artistiko interesgarri bat osatzen dute. Eta inguru eta multzoaz ari garenez esan biek espazioa eskatzen dutela, bestela ezin baita horrelako monumento bat bere osotasunean ikusi eta gozatu. Alboan egingo den aparkalekuak ez du fisikoki eragozpen handirik sortzen eliza ikusi ahal izateko, baina, tira, erabat apurtzen du multzo eta inguru artistikoaren "giroa". Gainera, beste arazo batzuk ekarriko ditu: zarata eta kutsadura. Frogatuta dago azken honek benetako arazoak sortzen dituela eraikuntzetako materialetan, adibidez, harrietan, batez ere, harearrian. Zenbait lekutan, monumentuak bisitatzeko aparkalekuak distantzia handira jartzen dira arazoak ebitatzeko. Orain berandu izango da, baina ea hurrengoan...

**Xabier LARRAÑAGA (Kapirixo)**


ARTAZI
OIHALAK
KONSUELO IBARRA
NEURRIRA JOSTEN DUGU
MOZTU ETA PROBATU ERE BAI
Katabia, 1 ☎ 76 27 17

ZAPELAITZ
Taberna
Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera
San Lorentzo 25, BERGARA

IGARO
✓ Kosmetika eta oparigaiak
✓ Eder gela
✓ Bio Solariunma
Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27

FS Foto Sistema Albenis
ARGAZKIAK ORDUBETEAN
✓ Diapositiba errebelatzeak.
✓ Karneterako argazkiak momentuan.
✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.
Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50




Erabilitako pila txapalak jasotzen dituzten komertziotara (erlojudenda, bitxidenda, argazki denda, optikadenda etab.) jotzeko eskatzen dute Diputazioak eta Gurutze Gorriak. Era berean, pila salinoak eta berdeak askoz hobeak direla gogoratzen dute.

## Pila txapalk biltzeko kanpaina

**Gipuzkoako Diputazioak** eta **Gurutze Gorriak** pila txapalak biltzeko kanpainari ekin diote. Pila txapala zakarrontzira edota zabortegira botatzen denean, hondatzen hasten da eta merkurioa kanpora dezake zabalduz gero. Merkurioa urakin nahasten bada, berriz, metilmerkurioa sortzen da eta oso kutsakorra eta arriskutsua da. Elikaduraren katean sartuta, kalte egiten die pertsona, animali edota landarei.

## Altos Hornoseko pabiloi zaharrak bota

Azken astetan **Altos Hornoseko** pabiloi zaharrak bota dituzte. Pabiloi horiek 1905. urtetik 1985ra bitartean funtzionamenduan izan ziren eta 1985.etik hona biltegitarako erabiltzen ziren. Orain pabiloiak bota, txatarra mordoa errekuperatu eta alboan diren tximini altuak dagoenetan utzi dituzte.



Hasiera batetan Industrialdea bertan joango zela aztertu bazen ere, badirudi, oraingoz behintzat, proiektu hori baztertu egin dela.

PINTURAS BERGARA
PB
Aranerreka, 32 behea. BERGARA.
Tfnoa eta faxa: 76 11 40
• INDUSTRIARAKO PINTURAK • APAINKETARAKO PINTURAK • GARBIKETAK • ERROTULOAK • Etab...

## Bergara-Frankfurt-Bosnia

**Bergara Bosniaren Alde** Plataformako kideek azken asteetan bildutako eskolako materiala, medikamentuak eta hondatzen ez diren janariak kargatu zituzten larunbat goizean. Guztira, 2,5 tona material inguru eta ia milioi bat pezeta batu dituzte eta materiala Bosnia bidean da dagoeneko. Lehenbizi materiala Frankfurteko amerikar base militarrera bidaltzeko asmoa dago eta handik parakaidasetan materiala Bosniako hainbat tokitan banatuko da. Ea Bergara Bosniaren Alde Plataformaren eta kanpainan parte hartu dutenen lana esku onetara iristen den...



Bergara Bosniaren Alde Plataformak kaxa ugari kargatu behar izan zituen larunbatean.

## Aran eta Joserraren ezkontza

**Arantzazu Salaberria** eta **Jose Ramon Beristain** pasa den martxoaren 12an ezkondu ziren Arraten. Ondoren, familiarteko eta gonbidatuekin bazkaria egin zuten Arrate Ostatuan, egun ahaztezina igaroz. Arantzazu bergararra dugu eta Jose Ramon Beristain eibartarrak Bergarako futbol talde nagusian jokatu zuen orain denboraldi batzuk. Zorionak biei!!



Ezkontza bidaia egitera Santo Domingora joan zaizkigu Joserra eta Aran.

## Zertan dihardute ba?



**Agustin Toledo** bergararrak parte hartuko du hilaren 15, 16 eta 17an Madrilen Gutxituendako Espainiako Boccia Txapelketan. Boccia jokoa petankaren antzerakoa da (12 bola, partaide bakoitzak 6 jaurtitzen ditu bola txuriaren ondoan ahalik eta hurbilen uzteko asmoz). Agustinek taldeka (Maite Etxezarreta eta Mario Rodríguezekin donostiarrekin batera) zein banaka lortu zuen sailkatzea pasa den astean Donostian. Bere hitzetan, *"sailkapena izerdi asko ateratzekoa izan zen eta orain, Madrilen, ahal dudan papera egingo dut. Lehengo aldia da eta maila ere altua izango da"*. Berarekin batera Nerea Egaña ermuarra eta Miguel Angel Gómez urretxuarrak hartuko dute parte.


**BERGARA BOLTSAK**

BBT

✔ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
✔ Denetariko konfekzio industriala
✔ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1, Tfnoa: 76 57 69 Faxa: (943) 76 55 66 BERGARA

# Iosu Zeziaga

## Trikitilaria

**22 urte, soinujolea, mekaniko ikasketak amaitzear dago Migel Altuna Institutuan. Horrez gain, Gasteizko Trikitixa Eskolan klaseak eman eta Bergarako eskubaloi talde nagusian jokatzen du.**




*"Porrusalda joteko baino jateko gustatzen zait. Rocka eta trikitia nahas daitezkeela uste dut eta San Martzial eguna dut jairik gogokoena. Eskubaloian Elgorriaga eta Wenta gustatzen zaizkit gehien"*

**- Tapia/Leturia ala Junkera?**
- Kepa Junkera.
**- Trikiti zaharra ala berria?**
- Biak.
**- Trikiti Pieza Berrien Lehiaketan izan zinen?**
- Ez.
**- "Porrusalda" joteko ala jateko?**
- Jateko.
**- Rocka eta trikitixa nahastuta?**
- Bai.
**- Trikitixa esportagarria al da?**
- Bai.
**- Diskoteketan trikitixarik?**
- Ez.
**- Ezkontzetan trikitixa ala "patxangadak"?**
- Biak, trikitixarekin ere patxangadak jo daitezke.
**- Neskei musikaz ala berbaz?**
- Musikaz.
**- Urteko jairik gogokoena?**
- San Martzialak.
**- Zenbat sagardotegitan aurten?**
- Aurten gutxi, bat bakarra.
**- Udaberriaren etorrera igarri?**
- Ez, jotzeko garaian bakarrik, jai gehiago izaten dira ta.
**- Eskubaloian gola sartu ala eman?**
- Eman.
**- Partidua ala entrenamenduak?**
- Biak.
**- Defentsa ala erasoa?**
- Erasoa.
**- Arrate ala Elgorriaga?**
- Elgorriaga.
**- Juantxo Villareal ala Josetxo Muniategi?**
- Josetxo ipini behar...
**- Jokalaririk gogokoena.**
- Bogdan Wenta.
**- Bazkaria ala afaria?**
- Afaria.
**- Plater bat.**
- Babak.
**- Zerk lotsatzen zaitu?**
- Gauza askok.
**- Zer baloratzen duzu gehien pertsona baten?**
- Adiskidetasuna.
**- Aste Santuan nora?**
- Bertan.
**- Oskarra nori emango zenioke?**
- "En el nombre del padre"ri.


Biltoki

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK, ALFOMBRAK, LARRUZKO SOFAK, DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK

SAN MARTIN PLAZA, 2 ☎ 76 43 51

Mxey
SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK. DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK. 5 URTEKO GARANTIA.
SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

PHILIPS
TEKNOLOGIA ETA DISEINUA. TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK, HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK, 100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

SONY
TB, BIDEOAK, KAMARAK, HI-FI EKIPOAK, SUPER TRINITRON TB.
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

Zumelaga
JATETXEA
ADRIAN ARRESE-IGOR
San Antonio 5
BERGARA
☎ 76 20 21

ARGAZKI
Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



# Galde debalde

## JOSE MIGUEL LETE

**Labegaraietako fabrika zaharreko kanpandorrean dagoen erlojua bederatziak hogei gutxitan dago geratuta eta dorrearen erdialdean ipintzen duena "UC de la Unión Cerrajera" da .**

Erantzun ugari jaso ditugu, baina oraingoan **JOSE MIGUEL LETE**ri tokatu zaio. Berarentzat izango da, beraz, **HERRAN ETXEA**k emandako sari bikaina. Zorionak **Jose Migue**li eta besteok segi jokatzen.

HERRAN ETXEA
ELEKTRAGAILUAK
Matxiategi, 4
☎ 76 37 53
SUKALDEKO ALTZARIAK

Zubikua
JANTZIDENDA
Barrenkale 24 , Tfnoa: 76 10 16



JOSE MIGUEL LETEk jaso du aste honetan HERRAN ETXEAk emandako saria.

Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24 , Tfnoa: 76 10 16

Hurrengo Galde Debaldeko saria ZUBIKUA JANTZIDENDAk emango du.

# Galde Debalde

## Aste honetako galdera:

Ekonomiaren esparru berriak lantzen hasi behar eta Deba Garaiak osotasunean eta Bergarak bereziki, bere burua munduaren aurrean aurkezteari ekin diote, bertara alde guztietako turistak erakarri nahian. Laster batean japoniarrak eta amerikarrak argakiak ateratzen ikusiko ei ditugu edozein bazterretan, monumentuak, paisaia ederrak, artelanak, gastronomia, jaiak... zenbat gauza saltzeko. Aste Santu inguru honetan ez daukagu prozesiorik eskeintzeko, baina bai ospakizun hauekin lotutako artelan bikainenetako bat: "Bergarako Santo Kristoa", San Pedro elizan kapera duena. Aste honetako galdera hauxe duzue:

**Noren lan bikaina da "Bergarako Santo Kristoa" deituriko taila?**

izena — abizena — telefonoa

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

## 1. maila

| TALDEA | Punt. | J | I | B | G | Golak alde | Golak aurka |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Madura | **28** | 14 | 14 | 0 | 0 | 56 | 14 |
| 2. Errotagain | **25** | 14 | 12 | 1 | 0 | 70 | 20 |
| 3. Tokieder | **22** | 15 | 10 | 2 | 3 | 86 | 35 |
| 4. Angiozar | **21** | 15 | 9 | 3 | 3 | 81 | 41 |
| 5. Usoa | **17** | 15 | 7 | 3 | 5 | 49 | 43 |
| 6. Bildurbarek LAM | **16** | 14 | 9 | 0 | 5 | 66 | 53 |
| 7. Bar Canalejas | **16** | 14 | 6 | 4 | 4 | 45 | 43 |
| 8. Arloteak | **15** | 14 | 6 | 3 | 5 | 40 | 48 |
| 9. Mongatxurra | **14** | 14 | 7 | 1 | 6 | 54 | 38 |
| 10. Guadalest | **14** | 15 | 5 | 4 | 6 | 36 | 53 |
| 11. Ogizun | **11** | 14 | 4 | 3 | 7 | 42 | 49 |
| 12. Os Jardineiros | **11** | 14 | 4 | 3 | 7 | 53 | 67 |
| 13. Ezinleike | **11** | 14 | 4 | 3 | 7 | 39 | 64 |
| 14. Akort Ariznoa | **10** | 14 | 4 | 2 | 7 | 57 | 59 |
| 15. Kriston Potruak | **9** | 13 | 4 | 2 | 7 | 57 | 59 |
| 16. Nahikari Hool. | **9** | 14 | 3 | 3 | 8 | 34 | 46 |
| 17. OH Zerezos | **9** | 15 | 4 | 2 | 9 | 43 | 71 |
| 18. Soropotroak | **8** | 15 | 4 | 0 | 11 | 41 | 54 |
| 19. Kriterium | **8** | 15 | 2 | 4 | 9 | 37 | 58 |
| 20. Shaktale | **7** | 14 | 3 | 1 | 10 | 32 | 83 |

### emaitzak

| | | | |
|---|---|---|---|
| Usoa | 2 | 2 | Bar Canalejas |
| Guadalest | 2 | 2 | Tokieder |
| OH Zerezos | 2 | 2 | Kriterium |
| Errotagain | 1 | 2 | Madura |
| Shaktale | 4 | 9 | Bar Canalejas |
| Arloteak | 2 | 5 | Tokieder |
| Guadalest | 4 | 3 | Nhikari Hool. |
| Soropotroak | 4 | 5 | Angiozar |
| Usoak | 6 | 2 | Os Jardineiros |

### hurrengo partiduak

• LARUNBATA •
kanpoan
12.00: Ezinleike-Kriterium **(Guadalest)**
13.00: Guadalest-Bar Canal. **(Ezinleike)**

• IGANDEA •
kanpoan
09.00: Kriston P.-Angiozar **(Akort Arizn.)**
10.00: Errotagain-Akort Ariznoa **(Madura)**
11.00: Madura-Bildurbarek **(Os Jard.)**
12.00: Shaktale-Os Jard. **(OH Zerezos)**
13.00: Usoa-OH Zerezos **(Shaktale)**
16.30: Soropotroak-Ogizun **(Mongatxurra)**
17.30: Mongatxurra-Tokieder **(Ogizun)**

## 2. maila

| TALDEA | Punt. | J | I | B | G | Golak alde | Golak aurka |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Arkupe | **37** | 21 | 18 | 1 | 2 | 115 | 50 |
| 2. Kalimotxo | **36** | 21 | 18 | 0 | 3 | 118 | 49 |
| 3. Ufala | **35** | 21 | 17 | 1 | 3 | 101 | 44 |
| 4. Etxagi | **34** | 21 | 16 | 3 | 2 | 136 | 60 |
| 5. Ozaeta | **33** | 21 | 15 | 2 | 3 | 128 | 48 |
| 6. Hartu Zamak | **33** | 20 | 16 | 1 | 3 | 103 | 57 |
| 7. Revienta | **33** | 21 | 16 | 1 | 4 | 90 | 52 |
| 8. Eri | **27** | 20 | 12 | 3 | 5 | 104 | 62 |
| 9. Uve Bikoitza | **26** | 21 | 12 | 2 | 7 | 108 | 79 |
| 10. Amozkibar | **22** | 20 | 10 | 2 | 8 | 76 | 56 |
| 11. Igandekoak | **20** | 21 | 10 | 0 | 11 | 65 | 77 |
| 12. Ari Ari | **20** | 21 | 10 | 0 | 11 | 82 | 96 |
| 13. Txipiron | **19** | 21 | 7 | 5 | 9 | 56 | 67 |
| 14. Kirolzaleak | **19** | 20 | 9 | 1 | 10 | 72 | 85 |
| 15. Krai | **18** | 20 | 8 | 0 | 9 | 88 | 86 |
| 16. Paok San Juan | **18** | 20 | 9 | 2 | 11 | 63 | 68 |
| 17. Matalascañas | **17** | 21 | 8 | 2 | 11 | 56 | 75 |
| 18. Los Txupeta | **14** | 21 | 6 | 2 | 13 | 50 | 73 |
| 19. Labegaraieta | **13** | 21 | 5 | 3 | 13 | 41 | 109 |
| 20. Aldoka Maldoka | **12** | 20 | 5 | 2 | 13 | 50 | 95 |
| 21. EH Biterrak | **11** | 21 | 4 | 3 | 14 | 47 | 86 |
| 22. Pata Negra | **11** | 21 | 5 | 1 | 15 | 55 | 108 |
| 23. Eusebio II | **9** | 20 | 4 | 1 | 15 | 57 | 116 |
| 24. KK Usaina | **0** | 19 | 0 | 0 | 19 | 32 | 150 |

### emaitzak

| | | | |
|---|---|---|---|
| Labegaraieta | 0 | 2 | Eusebio II |
| EH Biterrak | 1 | 2 | Los Txupeta |
| Ufala | 2 | 0 | Pata Negra |
| Igandekoak | 1 | 7 | Revienta |
| Krai | 3 | 5 | Paok San Juan |
| Arkupe | 9 | 0 | KK Usaina |
| Etxagi | 10 | 5 | Aldoka Maldoka |
| Ari Ari | 1 | 2 | Txipiron |
| Uve Bikoitza | 1 | 4 | Ozaeta |
| Kirolzaleak | 1 | 4 | Amozkibar |

### hurrengo partiduak

• LARUNBATA •
barruan
09.00: Labegaraieta-Uve Bikoitza **(EH Blt)**
10.00: EH Biterrak-Matalascañas **(Krai)**
11.00: Krai-Ozaeta **(Arkupe)**
12.00: Arkupe-Eri **(Ozaeta)**

• IGANDEA •
barruan
09.00: Igandekoak-Aldoka Mald. **(Ari Ari)**
10.00: Ari Ari-Kirolzaleak **(Etxagi)**
11.00: Etxagi-Paok S Juan **(Eusebio II)**
12.00: Hartu Zam.-Eusebio II **(Kalimotxo)**
13.00: Kalimotxo-P. Negra **(Hartu Zamak)**
16.00: Amozkibar-La Txupeta **(Ufala)**
17.00: Ufala-Revienta **(Arloteak)**
18.00: Arloteak-Nahik. Hol. **(Revienta)**

## Txinpartak

▼ Madurak sendo darrai lidergoan, partidu bakar bat ere galdu gabe. Joan zen astean lehen mailako bigarrenaren (Errotagain) kontra jokatu zuen eta 2 eta 1 nagusitu zitzaion. Partidu gogorra izan zen, lehen mailako talderik onenek euren artean jokatu zutena eta azkenean, esandako moduan, Madura izan zen garaile. Aste honetan Bildurbarek LAM taldearen kontra jokatuko du. Ikusi beharko inbatibilitateari eusten dion.

▼ Bien bitartean bigarren mailako sailkapenaren zuloan aurkitzen dena KK Usaina taldea da. Jokatu dituen partidu guztiak galdu ditu. Ea hurrengo partiduetan punturen bat urratzeko gai den.

## Golegileak

LEHEN MAILA

1. F. Salinero (Ogizun) .... **32**
2. I. Pagaldai (Angiozar).. **25**
3. I. Mujika (Tokieder) ... **23**
4. B. Jimenez (Kris. P.)..... **22**
5. Arriaran (Angiozar)...... **20**

BIGARREN MAILA

1. Agirrezabal (Kalim).... **56**
2. Agirrebeña (Ozaeta)... **52**
3. J. Izuskiza (Etxagi) ... **50**
4. J. Larrañaga (Eri) ...... **45**
5. A. Garitano (Arkupe) . **38**

Azken jardunaldiko golak zenbatu barik.

## KIROL EMAITZAK

**FUTBOLA**
• Prefente maila:
Bergara 2-Trintxerpe 2
• Lehen Erregionala:
Tolosa 1-Bergara 0
• Lehen mailako jubenila:
Bergara 3-Soraluze 1
• 2. mailako jubenila
Arrate 1-Bergara 2
• Lehen mailako kadetea:
Aitzgorri 1-Bergara 2
• 2. mailako kadetea:
Bergara 1-Urola 2
• Lehen mailako infantila
Aitzgorri 2-Bergara 6

**ESKUBALOIA**
• Senior mutilak:
Deusto 21-Bergara 20
• Jubenil mutilak:
Bergara 21-Ordizia 16

**SASKIBALOIA**
• Jubenil mutilak:
Bergara 63-Arrasate 53
• Infantil mutilak:
Aranzadi 51-San Viator 35

**PELOTA**
• Deba Arroa binaka:
Inf: Elgeta 18-Bergara 2
Jub: Elgeta 2-Bergara 22
Sen: Elgeta 14-Bergara 22
• Euskal liga:
Osasuna 17-Bergara 18
(Jubenilak banaka)

**XAKEA**
• Lehen maila:
Lasarte 1-Bergara 3
• 2. maila:
Bergara 4-Andoain 0
• 3. maila:
Gros 2 1/5-Bergara 1 1/5

# Trineotatik tiraka

## *Txakur Leren I. Lasterketa igandean Gorlan*

**Igandean** goizeko 10.30etatik aurrera Bergarako Txakur Leren I. Lasterketa jokatuko da Gorlan. Antolatzaileek 10 km.ko ibilbide gogorra prestatu dute iganderako eta txakur lerak, Pulka kategorian, minututik minutura irtengo dira banan banan; gainontzeko kategorietan, bi minutuko tartearekin aterako dira eta helmugan 3 denborarik onenak lortzen dituztenek trofeoa eskuratuko dute.

Ibilbidea honako hau izango da: Altzasu-Gorlako errefujioa-Iru Bide-Trekuts (belar pistetatik)-Iru Bide-Gorla eta Altzazu. Antolaketaren kalkulotan, partaide bakoitzak 45-50 minutu behar izango ditu zirkuitua betetzeko.

Honelako lasterketen araudian jasotzen denez, latigorik erabiltzea edota animaliak gaizki tratatzea debekatuta dago eta lasterketa hasten duten animalia kopuru bera heldu beharko da helmugara.

Proba honek milioi erdi inguruko aurrekontua izan du eta igandean pegatinak salgai jarriko dira 100 pta.tan gehi borondatea eskatuko delarik aurrekontua bete ahal izateko. Azkenik, antolatzaileek txakurrak eramaten dituztenei txakurrak ondo lotzeko eta ikusleak zirkuitu osoan zehar sakabanatzeko eskatu dute.



Axen Garitano lasterketan parte hartuko duen bergararra.

### *38 partaide*

Txakur Leren Lasterketan 38 partaide inguru izango dira. Oraindik ere izen-ematea itxi ez den arren, Reinosa, Madril, Valladolid, Katalunia, Nafarroa edota Gipuzkoako partaideak izango dira irteeran igandean.

**Honako kategoria hauek bereiztuko dira:**

• Pulka SH: 1, 2 edo 3 txakur gizonezkoen kategorian.
• Pulka SD: 1, 2 edo 3 txakur emakumeen kategorian.
• C1: 4 txakur, horietako bat gutxienez Husky arrazakoa.
• C2: 4 txakur (Huskyrik ez).
• B1: 5 edo 6 txakur, horietako bat gutxienez Husky arrazakoa.
• B2: 5 edo 6 txakur nordikoak (Huskyrik ez).
• A kategoria: Edozein arrazako 6-8 txakur (Husky, Malamute, Samoyedo eta Groenlandesak)
• 0 kategoria: Edozein arrazako 9-12 txakur.

Kategoria berezia: Beste edozein arrazako txakurrez osatuta.

JAUJA KIROLAK
Irizar, 2
☎ 76 14 95

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
•Apainketarako eta industriarako pinturak•
•Papel margotuak•
•Moketak eta tapizatuak•

JOSE LUIS eta MIKEL
URTEAGA, 6
• Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa.
• Etxebarruen dekorazioa
☎ 76 07 23 / 76 50 37 / 79 35 17





# Txakur nordikoak

**Txakur Nordikoen artean 4 arraza dira beren jatorrizko herrialdetako mugak gainditu eta gure artean ezagunenak bilakatu direnak: Siberian Husky, Alaskan Malamute, Samoyedo eta Groenlandesak. Beren izenak txakur horiek erabiltzen zituzten indio tribu ezberdinei sor dizkiete. Alaskatik txakur hauek Kanadan eta Estatu Batuetan barneratu ziren eta handik Europara heldu ziren 1950. urtearen inguruan. Hasiera batetan konpainia txakur modura erabiltzen hasi ziren beren edertasuna eta izaera alaiagatik baina zenbaitzuk ez zuten txakur hauen jatorria ahaztu eta lerekin lan egiteko gertatu zituzten. 1980an lehendanbiziko lasterketak egiten hasi ziren, Alpeetan eta Pirineotan egiten direnak ospe haundia lortu dutelarik. Baina edurra ez da edonon egoten eta elur sasoitik kanpo, trizikloekin eta lurrean izaten dira. Hemendik igandera bitartean, eguraldia zeharo aldatzen ez bada behintzat, Bergaran ere lera erroberadunak ikusiko dira.**

## KIROL KARTELDEGIA

**FUTBOLA**
• Bergara-Oiartzun
(Lehen Erregionala)
Larunbata, 17.00, Ipintza.
• Bergara-Euskalduna
(2. mailako jubenilak)
Larunbata, 15.15, Ipintza.

**ESKUBALOIA**
• Bergara-Vitoria
(Senior mutilak)
Larunbata, 17.30.
• Bergara-Zarautz
(Kadete mutilak)
Larunbata, 16.15
Bergara-Mollarri
(Kadete neskak)
Larunbata, 19.00
Hirurak Labegaraietan.

**PELOTA**
***- Afizionatuak -***
• Deba Arroa:
Bergara-Elgeta
Ostirala, 22.00.
• Eskola artekoa:
Bergara-Aretxabaleta
Igandea, 11.30.
• Euskal Liga:
Bergara-Zaramaga
(Jubenilak binaka)
Igandea, 11.30
Bergara-Ortuellako
Santa Maria
(Jubenilak banaka)
Asteazkena 21.30.
Guztiak Udal Pelotalekuan.
***- Profesionalak -***
• Soroa IIleta Azkarate / Arteaga eta Oliden
• Etxaniz eta Tolosa / Eugi eta Galarza
• Intxaurrondo eta Errasti II / Gabilondo eta Andueza V
Larunbata, 16.30.
Udal Pelotalekua.

**PALA TXAPELKETA**
Igandea, 11.00etatik aurrera.
Osintxuko Frontoia.

# AXEN GARITANO: "Lasterketa oso ikusgarria izango da"

**Axen Garitano 34 urteko bergararrak 2 urte daramatza txakur leren txapelketa ezberdinetan parte hartzen.**

Axenek Gaitao baserriaren inguruan Elurra izeneko txakurtegia zabaldu zuen 1992an eta ordutik txakurrekin gogor entrenatzen eta urte sasoi honetan izaten diren konpetizioko probetan burubelarri ikus dezakegu.

Bere hitzetan, *"beste batzuk ikusita animatu eta hortan hasi nintzen; Lesakan, Iruñean, Alto de Campon (Espainiako Txapelketa) edota Katalunian izan naiz"*. Lurra eta edurra tartekatzea tokatu zaio aipatutako karreretan eta bere ustez, *"edurretan ibiltzea karroan ibiltzea baino dibertigarriagoa da baina arriskutsuagoa ere bai, frenoak ez baitu lurrean besteko segurtasunik ematen. Bizikletan, berriz, estabilidade haundiagoa da, hiru erroberekin nekeza izaten baita erortzea"*.



Iganderako ez du aparteko asmorik Axenek, *"ziurrenik 8 txakurrekin irtengo naiz. Orain arte 6kin ibili naiz eta ez nago oso ohituta 8kin ateratzera baina batez ere jendeak ikusteko egiten dut, lasterketa ahalik eta erakargarrien izan dadin jendearentzat. Ez daukat dudarik jendea pozik irtengo dela han ikusitakoaz, oso bistosoa izango da eta"*.



## *Bergarako musikoak. 1924.*

1924ean etorri ziren atzerritik Bergarara Rekabeitia anaiak beren giroko musiko lagunekin egun zoriontsu bat igaro nahirik. Monja zaharretan meza entzun ondoren ateratako argazkia da hau. Ondoren "Kantoikuan" (Gasparrenean) bazkari eder bat eginez ospatu zuten.

Hauek dira ezkerretik eskumara:

**Lehenengo ilaran:** Anjel Unamuno, Migel Pikazarri, P. Rekabeitia, Luis Gabilondo, J. Rekabeitia, Gaspar Lonarbide eta Gurutz Nuarbe.

**Bigarren ilaran:** Enrike Noarbe, Zelestino Igarza, Julio Arana, Federiko Bilbao, Modesto Aranburu eta Eduardo Murua.

**Azkenengo ilaran:** Pako Valladolid, Felix Berraondo, Tomas Etxeberria eta Felix Larrañaga.

*Estepan Plazaola*

INFORMATIKA IKASTAROA

MACINTOSH

- PROGRAMAK: Word eta QuarkXPress
- NOIZ: apirilak 16, 23, 30 eta maiatzak 7
- ORDUTEGIA: larunbatetan 10etatik 12etara
- IZEN-EMATEA: apirilaren 13a baino lehen JARDUNen (76 08 19)
- PREZIOA: - Bazkide direnentzat: 5.000 pzta.
  - Ez direnentzat: 6.000 pzta.

ANTOLATZAILEA: Jardun

## ETXEBIZITZA

**Garajea** (2 plaza) hartuko nuke **alokairuan** herri erdian. ☎ 76 20 46 (Pablo).

**Etxebizitza salgai** Iparragirre kalean. ☎ 76 40 82.

**Garajea** salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

**Garajea** salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

**Pisua salgai** Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

**Pisua** salgai San Miguel kalean. 55 m2. Ganbararekin (35 m2). ☎ 76 02 13.

Zubiaurren **pisua alokatzen da.** ☎ 76 13 85.

**Garajea salgai** Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

**Pisua** salgai Zabalotegi Torrean (17. pisua). ☎ 76 33 19 (gauez).

**Apartamentu** zentrikoa alokatzen da Culleran. Maiatza, ekaina, uztaila eta iraila. ☎ 76 59 71.

**Garajea** salgai Bolun. ☎ 76 39 33 (arratsaldez).

**Pisu** amueblatua salgai Bolun. ☎ 761075 (gauez).

**Pisua** alokatzen da Mekolalden. ☎ 762209.

**Pisua alokatzen** da Zabalotegin. ☎ 76 33 93.

**Garajea salgai** Ibargarain. ☎ 76 36 69.

**Etxea** salgai Zabalotegi 3an. Terraza eta guzti. ☎ 76 42 24.

## DENETARIK

**Alfa 33** kotxea salgai. Kilometro gutxi. Egoera onean. ☎ 76 02 01.

**Remolke-denda** "Cabannon" salgai. ☎ 76 37 82.

**Nintendo** bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

**Baserri** bat hartuko nuke ☎ 76 62 64 (Imanol).

**Peavey** anplia eta gitarra. 60.000 pta. ☎ 76 53 55.

**Petrikilo**, masajista eta karta-aztia. ☎ 76 47 24 (Gonzalo).

Paseozko Torrot **bizikleta** salgai, 13.000. ☎ 764868.

**Onix** motorra (50 cc.) salgai. ☎ 76 43 37 (Aner).

**BX-16 TRS kotxea** salgai. SS-V, 150.000 pta. ☎ 76 48 23.

**Montesa Cota 335** (SS-AF, 175.000 pta.) eta **Vespa 200** (VI-F, 60.000) motorrak salgai. ☎ 76 53 55.

**Subijanaren** sukaldaritza liburua eta 6 bideo (7.000 pta.) eta patin botak (5.000) salgai ☎ 761968.

**Kanpin denda** haundia salgai (45.000 pta.) ☎ 76 26 73 (gauez).

**Renault 21** TXE bat **salgai.** 1988koa. ☎ 763868.

**Artzai txakur** bat galdu da. ☎ 76 27 90.

**Mendi bizikleta** salgai. Cannondale XT.150.000 pta. ☎ 781858 (Jose Mari).

Mendiko bizikletako **zapatilak** salgai. Oparia: kaskoa. ☎ 76 37 29 (Martin).

**Butanozko** Mepamsa **estufa** salgai. ☎ 76 01 13.

**Game-boy** bat salgai. 16 joku, 9.000. ☎ 76 48 68.

## LANA

**Haurrak** eta gaisoak zaindu edota etxeak garbituko nituzke. ☎ 76 45 53

**Ingeles klaseak** ematen ditut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

Haurrak/zaharrak **zaindu** eta **etxeko lanak** egiten ditut. ☎ 764094 (Isabel).

**Propaganda** banatuko nuke. ☎ 76 40 94 (Jaime).

**Ingeles Filolojian** lizentziatuak, ingeles klaseak emango lituzke. ☎ 76 17 36.

**Ingelesezko klaseak** ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Haurrak** zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 50 38 (Ines).

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Emakume batek **etxeko lanak** edota **haurrak zaindu**ko lituzke. ☎ 76 27 24 (Dolores).

Matematika eta Fisika **klaseak.** ☎ 762457 (Josune).

**Zaharrak** zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

## Hildakoak

***Julian Saturnino Ena Boraita***
martxoak 17, 74 urte
***Herminio De Marcos García***
martxoak 18, 54 urte

## Jaiotakoak

***Aste honetan Epaitegian ez da jaiotakoen berririk jaso***

Atseden zentrua
LOKARTU
Koltxoi-Denda
Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

BEHEKO TABERNA
Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ZUBIETA
elektragintza
✓ Motorren bobinaketa
✓ Era guztietako instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

# TXAKUR LEREN I. LASTERKETA

## BERGARA, ERRAMU DOMEKA (1994)



**ESKERRIK ASKO ETXE BABESLE ETA ERAKUNDE HAUEI**



*TXAKUR eta KATUENTZAKO JANARIA (PENTSUA)*

**JATEKO**

**Bergarako Udala**

**ELURRA**
**TXAKURTEGIA**
*Txakur Nordikoak*

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| NAHIKARI Taberna | DIMAS Larrañaga | BIONA Pentsuak | LAKOR | NINIKA Lorade |
| AMILOTX Kafetegia | FEGAR Tailerrak | BRUNET | BOLINTXO | BERDIN S.A. |
| BELENGUA Taberna | Jose LAPIUR S.A. | ETXEBERRIA Erlojutegia | IÑIGO IGARTUA | ELOSUKO AUZO |
| KAYAK Taberna | IZPI Galdarategia | K3 Zerbitzuak | POL-POL Argazki Taldea | ANTZUOLAKO UDALA |
| USOA Pub | LARRAÑAGA Optika | ION Autoak | SURRA Irratizaleak | IRIZAR Zurak |
| ATERPE Taberna | TXURRUKA Autoak | EUSKADIKO KUTXA | DYA | LONBIDE Zapatadenda |
| URRATS Taberna | APERRIBAY Industriak | BIGOZA Industriak | ERTZANTZA | KIÑU |
| TXORNO Autoak | M2 ERROTULOAK | OLA Tailerrak | IRU MENDI Elkartea | LARRAÑAGA eta ZUBIA |
| ARRASATE Pentsuak | JAUJA KIROLAK | BALDANA Albaitariak | ALTZAZU Elkartea | MINER Ardoak |
| LETE Toldoak | AKORT Kamisetak | DISDIRA | MARKIEGI Autoak | TOKI EDER Tabe |
| ZARUGALDE Albaitariak | ARANBURUZABALA Anaiak | TXURINGO | ALGA Lurrindegia | |